


Lanerako belaunaldi berriak loratzen





AURKIBIDEA

Iritzia Izaro Zubiria Ibarguren **3**

Kale Kantoitik Ainhoa Mendiluze **8**

Asteko Gaia

Lanbide Heziketa **10-17**

Iritzia Imanol Artola Arretxe *felix* **20**

Iritzia Rocio Fraga Vazquez **21**

Begirada Grafikoa Ibaikadak **23**

Hitzez Hitz Ramon Olasagasti **24-25**

Erreportajea Brumadinho **26-28**



Azaleko irudia
Josu Artutxa

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzen eta
lana egiten

3ikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEa: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





**IZARO ZUBIRIA
IBARGUREN
ALBAITARIA**

Traktoreak kaleetan eta txaloak balkoietan

Seguru nago zuetako gutxik jakingo duzuela zer esan nahi duten NPB hizkiek, edo PAC gaztelaniaz. Harritzekoa bada ere, guztiei eragiten diguten hizkiak dira, baina gutxi batzuk soilik ezagutzen ditugu, eta gutxi batzuk soilik jakingo dugu konfinamendu bezperatan, lurralde askotan traktoreek kaleak hartu zituztela, NPBaren diru laguntzen murrizketa eta sektoreak bizi duen krisia dela eta.

NPBa, Nekazaritza Politika Bateratua da. Europako politika honen bitartez, lehen sektoreko aktibitatea finantzatzen da, nekazari zein abeltzainen lanari balio erantsi bat ematen dio; izan ere lan horri esker biztanleria guztia onuradun garelako; landa eremuko *garbitzaile*, kulturaren gordeleku eta lehen mailako elikagaien ekoizle direlako, besteak beste. Beste modu batean, eta denok ulertzeko, NPB diru laguntzek, guk elikagaiengatik ordaintzen ez duguna finantzatzen dute, horrela baserritarrak merkatuan jasotzen ez duen errentagarritasuna izan eta aktibitatearekin jarraitu ahal izateko.

Osasun langileen lana asko aitortzen ari garen une honetan, sentitzen dut, beste sektoreetako langileak ahazten ari garela, tartean lehen sektorekoak. Denok dakigu baserritarrek, momentu puntualetan ez ezik, urteko 365 egunetan egiten dutela lan, ordutegi, aste-buru eta lan hitzarmenik gabe, erabiltzen dituzten lanabesekin arriskuak hartzen dituzte, baldintza meteorologikoen menpe daude, eta pandemia eta mugen itxiera honetan, birus edo birusik gabe, bizitzeko behar ditugun elikagaiak ekoizten dituzte. Baserritarrek,

ordea, ez dute soldata egonkorrik eta ez dituzte ordu estrak kobratzen, azken finean, ez dute beren lana konpentsatuko duen soldatarik jasotzen.

Gaur egungo mundu globalizatu, industrial eta kontsumistaren erorkerarekin, ezinbestekoa da bertako ekoizpena indartzea eta bermatzea, ezinbestekoa da baserritar eta denda txikiak indartzea eta ezinbestekoa da landa herriak bizirik mantentzea, faktore

Oraingoan maskarak, arnasgailuak eta oheak falta dira ospitaleetan, eta hurrengoan baserritarrak eta elikagaiak ere faltako dira

hauek baitira, hurrengoan ere, salbu egoten lagunduko digutenak birusen etorreren zein mugen itxieren aurrean.

Oraingoan maskarak, arnasgailuak eta oheak falta dira ospitaleetan, eta hurrengoan baserritarrak eta elikagaiak ere faltako dira. Beraz, osasun publikoaren aldeko borroka denona den moduan, baserritar eta nekazarien duintasunarena ere denona da, eta horregatik, gaurkoan, ospetsu egin diren txalo zaparrada herrikoi bat eskatu nahiko nuke lehen sektoreko langileen alde gure babesa eta eskerrak emateko.

«Negua luzea egiten zaio erleari»

MIKEL ZUBELDIA

GIPUZKOAKO ERLEZAINEN
ELKARTEKO LEHENDAKARIA

Erlezainek asiar liztorrekin bizitzen ikasi behar izan dute, baina beraien aurkako borrokari eusten diote. Habia bat topatuz gero, oso garrantzitsua da lehenbailehen udaletxean abisua pasatzea, deuseztatzeko.

Eneritz Maiz Etxarri Tolosa

Mikel Zubeldia tolosarra da, eta azken urteetan, Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko lehendakari lanetan ere ari da. Elkartean gero eta gehiago dira, eta sartzen diren kide berrien aldetik, «beren ideia eta indarrak elkartera pixka bat bideratzea» gustatuko litzaiokeela aitortu du. Azken urteetan lan handia egitea tokatu zaie asiar liztorren aurka.

Jada badira urte batzuk asiar liztorrak gure artean daudela. Zein da gaur egungo egoera?

Egoera azken urteetan, gutxi gorabehera, antzeko da. Zorionez edo, gure kasuan, ez da gehiagora joan. Orain esaten duten kurba famoso hori goia jota dago, eta gain horretan mantentzen da. Eragin nahiko fuertea izaten du udazkenean, batez ere, eta hor jarraitzen dugu borrokatzen.

Gure arten bizi dira.

Bai. Erabat. Orain nahiko ohikoa da kaltetik zoazenean edo etxean zaudela ikustea.

Lan asko dago egiteko?

Bai, argi daukagu, desagertu, ez dela desagertuko. Azkenean, gure lana beraiekin jasangarria den elkar-

«Administrazioa gehiago inplikatzeari nahiko genuke; geldirik dago kontua»

bizitza eramatea izango da. Azken urteetan lan asko egiten ari da: tranpak, pozoiak,... beraien aurka ibiltzeko, baina, oraindik ez dago definitutako zerbait, edo eraginkorra den zerbait. Lana batez ere horretan zentratuta dago, asmatzen.

Azken urteetan behar beste neurri hartu dira?

Hori jasaten dugunontzat gutxi da; gehiago egitea gustatuko litzaiguke. Bai ikerketan edota lanketa ezberdinetan. Administrazioa gehiago inplikatzeari gustatuko litzaiguke.

Gauzak egiten ari dira, baina geldirik daude. Hemendik aurrera sortuko dena, suposatzen da, gutxitzera joateko izango dela. Esperantza beti hor daukagu, baina urteak pasatzen dira eta antzeko egoeran gaude.

Zein kalte egiten dute, zehazki, asiar liztorrek?

Batez ere, erleentzako arazoa udazkenean da. Behin abuztua pasata, erlea, negurako prestatzen hasten da. Neguan ez dago, ez lorarik ez nektarrik duen landararik, beraz, negu luzerako prestatu behar dute. Hibernatzeko esaten dena. Orduan, be-





Mikel Zubeldia tolosarra, artxiboko irudian, bere erlatoki batean. **R. CALVO**

ELKARRIZKETA

gua bakarrik erregina batek pasatzen du, eta bera da, abuztuan, 3.000 edo 4.000 liztor izatera iristen den habiaren sortzailea. Urteko zikloa du. Erlea, berriz, erregina hiru edo lau urte bizitzera iristen da. Neguan ere erle kopuru handia dago erlauntzetan hibernatzen. Liztorrak, aldiz, bakarrak pasatzen du negua. Horrek zailtzen du bere aurkako borroka. Neguan ez dakigu non dauden, desagertu egiten dira.

Zein egoera bizi duzue erlezainek zuen lanean?

Guzti honek lan gehiago eskatzen dizu. Gainean egon behar duzu, eta gastuak ere asko igotzen dira. Erlategira bidaia gehiago, tranpak jarri eta kendu, erlei jaten eman behar zaie, gaixotasunak sortzen zaizkie...

Orain da garaia asiar liztorrei tranpak jartzeko.

Erlategietara joateko ohitura dute, eta orain, udaberrian, tranpak jartzen ditugu erreginak harrapatzeko, eta udazkenean denetarik harrapatzeko. Foru aldun-

dian baimena eskatzen da, eta bakoitzak dituen erle kopuruaren arabera jartzen dira tranpak. Erakargarri bat jartzen da, hau da, zerbait gozoa. Azukreduna. Eta alkohola gehitzen zaio erlea bertara ez sartzeko. Beste espezie batzuk ere sartzeko direnez, tranpak jartzeko data konkretu batzuk ditugu, kalte horiek ekiditeko.

Herritar batek asiar liztorrak daudela

ikusiz gero, zer egin beharko luke?

Berez ezin du norbaitek bere kabuz tranpak jartzen hasi. Habiak ikusten ez badira gauza gutxi egin daiteke. Habiak topatzea da eraginkorrena. Abaraska horiek udaberrian txikiak izaten dira, eta aurkituz gero abisua pasa behar da, eta kendu egin behar dira. Aldiz, udazkenean habia handi horiek topatzen direnean, protokoloaren arabera, bakoitzak bere herriko udaletxera jo behar du kentzeko abisua ematera.

Garrantzitsua da abisu hori pasatzea?

Bai, oso garrantzitsua, eta lehenbailehen kentzea ere bai. Hobe da, uztaila edo abuztuan aurkitutako habia deuseztatzea, iraila edo urrian aurkitutakoa baino. Iraila edo urrian, kontua da habia horietatik hurrengo urterako sortuko liratekeen erreginak aterako direla. Sortu aurretik habia deuseztatzea lortzen bada, eragina askoz ere garrantzitsuagoa izango da.

raien lana aldatzen da, erlea aldatzen da eta jan mota aldatzen da, eta jan asko pilatu behar dute. Liztor eraso dagoenean, ez dio uzten lan hori egiten, eta, beraz, erlea ez da behar bezala prestatzen negurako. Negua luzea egiten zaio, eta gu gainean ez bagaude hiltzeraino iristen da. Batez ere, liztorren erasoaren beldurrez ez da lanera ateratzen.

Zergatik erasotzen dute erlea?

Erlean daukate beraiek bizirauteko behar duten guztia. Alde batetik proteinak, erlearen toraxaren zati bat larbei jaten emateko erabiltzen dute, eta bestalde, erleak bilduta dakarren nektarra, beraiek jateko da.

Mundu honetan erleen lana garrantzitsua dela esaten da. Zergatik?

Erleen izatearen arrazoia polinizazioa da. Bera lorez lore, nektarraren bila ibiltzen da polena jasoaz. Horrekin espezie ezberdin askoren polinizazioa egiten du. Batez ere, hori da bere funtzioa naturan. Horretarako egina dago, eta erlerik ezean, polinizazioa ez litzateke hain eraginkorra izango, eta horrek eragin zuzena du gainontzeko gizaki guztiongan.

Zertan bereizten dira asiar liztorra eta erlea?

Liztorren bizi zikloa sasoiko edo urte batekoa da. Ne-

«Erleak negurako jan asko pilatu behar du, eta asiar liztorrak ez dio uzten»

ERLAUNTZAREN BIZIRAUTEA, KEZKA LARRIA

Herritarren artean ez dira oso ezagunak erlauntzatik ekoiztutako produktuek osasunean dituzten onurak. Horiek, ordea, galera bihurtu daitezke, urteak direlako erleek inoiz baino ezti gutxiago sortzen dutela. Bizziz dendan jakitun dira egoeraz; oraingoz, baina, gustura daude.

Josu Artutxa Dorronsoro

Hamarkadak dira, ez direla lehen bezain-beste erle ikusten, ez dutela berdin lan egiten, barroa eta liztor asiarra etsai bilakatu zaizkienetik. Erlea ez da gai bere kabuz bizitzeko; ondorioz, erlezainek zaintzen dituzten erleek bizirautean dute soilik. Horrez gain, ugariak dira azken urteetan izandako erlauntzen lapurretak. Egoera honek kezka handia sortzen du gizartean, askorentzat oinarrizko elikagaia delako ezitia, erlauntzako produktu nagusia, eta nork daki, etorkizunean ezti gehiago izango dugun edo ez. Momentuz, ez da galararik aurreikusten, baina erlezainek geroz eta zailtasun handiagoak dituzte erlea maneiatzeko eta ezitia ekoizteko.

2018an, glutenik gabeko produktu freskoek gain, erlauntzako produktuak eskaintzea erabaki zuen To-losako Bizziz dendak. Bertako langilea da Yolanda Saizar, eta dioenez, «produktu oso espezifikoak dira, bezero motagatik, eta merkatuan bermatutako kalitatea bilatzen erraza ez delako. Guk, gainera, kalitatean egiten dugu apustu». Intolerantziaren bat detektatzen duten bezeroen inguruan galdetuta, geroz eta gehiago direla dio. «Askok, ordea, nahasmen handia dute elikadura aldatetekin. Komeni ez zaiena janez gero, sintoma larriak ez dituztenek normalean elikadura pauta arinagoak hartzen dituzte».

Bezeroez harago, herritarrak daude, eta hauek erleei buruz duten jakinduria zenbaterainokoa den ere azaldu digu Saizarrek. «Salbuespenak salbu, dakitena zera da: erlauntza batean hiru erle mota daudela, erregina bakarra dela, asiarrekin arazoren bat badela, eta erlea, animalia bezala, gaiztoa denaren konbentzimentua dute, eman dezakeen ziztadagatik. Hala ere, askok ez dituzte beste liztor desberdinetatik bereizten. Liztorren hozkada da benetan mingarria dena».

Jakina denez, eztiak gain, era guztietako produktuak eta elikagaiak lortu daitezke erlauntzatik. Ezitia bera, propolia, erregina-jelea, polena eta argizaria dira oinarrizko produktuak. Bizzizen, gainera, horietatik abiatuta elaboratutako beste produktu asko ere badituzte: alkoholik gabeko propolia, sudurrekoa, baltsamoa, jarabeak, infusioak edo kirolerako elikagaiak. Apiterapia tratamendua ere eskaintzen dute. «Ez da oso ezaguna, baina oso eraginkorra da. Jendeak kezkaz hartzen du, ziztadari beldur handia diogulako. Gure esperientzia kontutan hartuta portzentaia oso altu batean -%90ean- izan da eraginkorra».

Ugaria da erlauntzako produktuen kontsumoak osasunean onura duela dakiten herritarren kopurua. Saizarren esanetan, «egokiak dira katarro, gripe edo bakterio edo birusek eragindako gaixoaldien aurrean, gure sistema immunologikoa eraginkorra izateko.



Gure kasuan, bada bezero multzo bat produktu horiek kontsumitzen hasi zirenetik gaixoaldi gutxiago edo batere izan ez dutela esan digutenak».

Baina, beharrak bete eta herritarrek hornitzeko, ezinbestekoa da honen guztiaren aurreko produkzio lana. Hori dela eta, ekoizleak, ezinbesteko elementu bilakatu dira. Bizzizen, Euskal Herriko nahiz estatuko erlezainekin egiten dute lan. «Bertako produktuaren aldeko apustua egiten dugu, kalitatea bermatzeko modurik onena delako. Lore bakarreko eztiaren kasuan, ordea, eskaria handia da, eta horien ekoizpena hemen ezinezkoa da». Elkarrekin duten harremana «oso ona, zuzeneko eta aberatsa» dela dio. «Beraiei lan karga arintzea lortu dugu, baita bezeroei horrelako produktuak ordutegi komertzial zabal batean eskaintzea ere».

BIZZIZ DENDAKO PRODUKTU ETA ZERBITZUAK

- **Eztia:** Osasungarria, digestiorako ona, eragin antiseptiko handia duena, eta bakterioen aurkako propietateekin.
- **Propolia:** Infekzioen aurkako antibiotiko naturala, hainbat bakterio, birus eta onddoek sortutako gaitzen aurkakoa.
- **Polena:** Nutrizio aldetik elikagai oso aberatsa, eta organismoaren estimulagailu eta suspertzaile aparta.
- **Erregina-jelea:** Nutrizionalki oso aberatsa, batez ere, B5 bitaminaren ekarpenagatik. Organismoaren zahartze prozesua makaltzen du, zelulen oxigenazioa aktibatuz.
- **Argizaria:** Ukenduak egiteko ona. Operkuluko argizaria ezinbestekoa da, intsektiziden absentsia bermatzeko.
- **Apiterapia tratamendua:** Erlearen pozoia aplikazioa.

ATARIAN jarrita Goierrri eta Urola Kostako Hitza egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
 Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
 Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
 Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.

Koarentena berrogeialdi



AINHOA MENDILUZE



Koarentena hitzaren jatorria izurri beltzaren garaitik dator. XIV. mende hartan, biztanleriaren hiru laurdenak hil zituen eritasun makurraren aurrean, erremedio eraginkorrik ezin topatu zebiltzala sortu ei zen isolamendu-aldiaren ideia. Bertsio ezagunenak dio Veneziako kolonia zen Ragusa hiriak (gaur egungo Dubrovnik-en), mugimendu handiko portua zuenak, zera erabaki zuela: hiriari lehorreratzeko asmoa zuten eta kutsatutako tokietatik etorritako itsasontzi guztiek berrogei eguneko isolamendu-aldia igaro behar zutela lehorreratu aurretik.

Aldi horri, Veneziako italieran, *quarantina* esaten ei zioten, eta hortik *koarentena* hitzaren erabilera.

Aste hauetan inoiz baino presenteago zaigu hitza. Leku pribilegiatua hartu du norberaren mihi-burmuinetan; haurrek ere halabeharrez ikasia izango zuten komunikabideek maiztutako hitza. Batzuek zalantza egingo dute euskaraz *kuarentena* edo *koarentena* den; hedabideetan ikusiko dute 'o'-rekin idatzi behar dela, *koader-no* bezala. Baten bati estres linguistikoa sortuko zaio; leku batzuetan *berrogeialdi* adituko du, eta besteetan *koarentena*, eta seguruenik, lagunartean (birtualki, izan beharko) pedantekeria erortzearen beldurrez, koarentena erabiliko du, akaso, ortografia zuzenez. Twitterren, ordea, baliteke bi aldiz pentsatzea zeinen alde egin. Noraeza senti dezake, hiztegien eta estilo liburuen artean ere ez dago-eta adostasunik.

Ziur nago irakasle batek baino gehiago bidali diela ikasleei koronabirusaren inguruko lanik: kutsatuen estatistikak direla, norberaren koarentena-esperientzia kontatzeko idazlana dela, erantzun mediatikoaren analisia... Nire errezeloa da bi hitzotako bat hautatu behar horretan, gehientsuenek *berrogeialdi* erabiliko dutela, edo ikasleek bietako zein erabili behar den galdetzen dutenean, izendapen hori hobetsiko dutela. Ez da gaur goizeko kontua eskoletan *elegante* beharrean *dotore*, *produzitu* ordez *ekoitzi*, *guardasola* beharrean *aterki*, *konfesatu* ordez *aitortu* eta *dibortziatu* ordez *banatu* gomendatzen dituztela alde edo moldez, gaztelaniaren mamuek ikaratuta. Bi izendapenotako bakarra aukeratu behar balitz bezala, bakoitzak bere ñabardurak izateko aukerarik ez balu bezala. Eta eskolan bezala, euskal hiltun gehienek ere halatsu egingo dutelakoan nago, testuinguru formaletan gutxienez.

Koarentena hitzari gaztelania usaina dario, baina ez da hitz *castellanoa*, erdalduna baizik; ikusi, bestela nola deitzen dioten kontzeptu horri ingelesez, alemanez, frantsesez, errumanieraz, grekaraz, kurdueraz, suedieraz, galegoz, turkieraz edo georgieraz, beste askoren artean. Hitzaren etimologiak kontzeptuaren jatorriaren berri ematen digu, ez besterik.

Baduzue zer pentsa konfinamendu (itxialdi?) honetan. Bitartean, eskuak maiz-maiz garbitu eta eutsi goiari!

Mozorpo onenak



Epaimahaiaren saria:

Dama berdea (Maddi Goenaga)

Aldekoa Landetxean bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia: Suite Baztean jacuzzidun logelan eta gosariarekin.

948 45 26 06 • www.aldekoa.es • Ziga (Nafarroa)



Ataria.eus-eko erabiltzaileen saria:

Sufragistak (Nerea Gangoitia)

Lau pertsonarentzako otordu bat,
Zabala sagardotegian.

Goiburu auzoa, Aduna • 943 69 07 74 • rzabala.com



Atarikideen saria:

Uzturreko tirolina (Aitziber Urrestarazu)



Atarikideen saria:

Otsoa dator! (Izaskun Larráyo)

Bi lagunentzako afari bana, Lurlan Bistrot dendan.

Plaza Berria 2, Tolosa • 943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus

- Ataria jarriko da zuekin harremanetan -

Geroz eta enpresa gehiagok ezinbestekotzat dituzte Lanbide Heziketatik joandako langileak. Eskualdean, bost dira heziketa mota hau bermatzen duten ikastetxeak, bakoitza bere ezaugarriekin, baina guztiak hobetzen jarraitzeko asmoz.

Josu Artutxa Dorronsoro

Zuzenbidean lizentziaduna den Andoni Kortazarrek, 1995ean, Euskaldunon Egunkarian idatzi zuen artikulua batean honakoa aipatzen zuen: «Lanbide heziketak onurak eskaintzen ditu enpresetarako: balioaniztasuna, produktibitatearen igoera eta abar. Zergatik ez da egiten ba?». Duela mende laurdeneko kontuak dira, baina gaur egun, bada heziketa mota honek ezertarako balio ez duela pentsatzen duenik. Izan ere, Kortazarrek zioen moduan, «ohitura horrek lanbide kalifikazio eza ekarri digu. Maisu eta kazetari pila bat daukagu baina haraginik ez».

Lanbide Heziketa Bigarren Hezkuntzako edo Erdi eta Goi Mailako Hezkuntzako ikasketak dira, bi ikasturtetan banatuta, lanbide arlo batean ezaguerak eta trebetasunak lortzeko asmoz. Helburu nagusia langile direnentzat eta izango direnentzat bizitzak osoko ikasketak sortzea da. Lan merkatuarekin estuen lotuta dagoen ikasketa multzoa da, eta, gaur egun, ikasleek lanbiderako gaitasuna lortzea eta lan egokiak eskuratzeko bilatzen da. Modulu esaten dien ikasgaiak dituzte, eduki teoriko eta praktikoekin, baita enpresan lan egiteko praktikaldiarekin ere.

EAEn eta Nafarroan Lanbide Heziketaren barruan hiru sistema bereizi izan dira: Oinarrizko Lanbide Hezi-

PERTSONAK LANGILEAK



keta, langabetuei zuzendutako Lanbide Heziketa eta bizitzak osoko Lanbide Heziketa edo etengabeko ikasketak. Oinarrizko Lanbide Heziketaren barruan, Erdi Mailako hezkuntza zikloak eta Goi Mailako hezkuntza zikloak daude. Bi horietan, 20 ziklo inguru daude onartuak, besteak beste, Nekazaritza, Kimika, Osasungintza, Elektrizitatea, Informatika, Administrazioa, Ostalaritza edota Gizarte Zerbitzuak.

K HEZIZ, HAZIZ



Lanbide Heziketan oinarritutako bost ikastetxe dau-
de Tolosaldean; erabat desberdinak. Tolosan, Peñascal
Kooperatiba, Inmakulada Ikastetxea, Don Bosco Eskola
eta Tolosaldea Institutua aurkitzen dira; eta Zizurkilen,
berriz, Fraisoro Eskola. Guztiek ere parte hartzen dute,
urtero antolatzen den Lanbide Heziketaren azokan.
Gaur eta bihar zen ospatzekoa, baina osasun krisiaren
ondorioz ezarritako alarma egoera dela eta, momentuz

bertan behera geratu bada ere, aurrerago egin nahiko
lukete. Hala ere, ikasleak eta irakasleak etxetik ari dira
lanean. Izan ere, Lanbide Heziketak ez du etenik.

Ikasten eta lanean, aldi berean

Azken urteetako krisi ekonomikoaren testuinguruan,
Europar Batasuneko herrialdeak ekintza ugari gauza-
tzen ari dira, Lanbide Heziketaren bidez gazteen lan-
gabezia tasa altuak arintzeko neurriak sustatzeko
eta ikasleen lanbide kalifikazioa eta espezializazioa
bultzatzeko. Hori, DUAL izeneko metodologiaren bi-
tartez lortu nahi dute, hau da, aldi berean, enpresako
lanaldia eta zentroko ikasketak uztartuz. Lehen ikas-
turtea ikastetxean egiten da, bigarrena, berriaz, ikaste-
txean eta enpresan, txandakako prestakuntzan.

Ikaslearen eta enpresaren artean bi motatako harre-
mana egon daiteke: lan kontratu batekin, edota kon-
pentsazio erregimenean ikasleei prestakuntza progra-
mak egiteko bekak emanez. Lanbide Heziketako titulu
bat lortzeko aukera ematea, gaitasun pertsonal eta so-
zial batzuk eskuratzea, enpresa baten eguneroko mar-
txa ezagutzea eta bere behar zehatzei erantzuteko gai
izatea, produkzio emaitzak lortzea, trebetasunak eta
abileziak lortzea, gazteak lan mundura hurbiltzea eta
sartzea, eta edukiak eta pedagogia metodoak berri-
taitezen bultzatzea dira metodologia honen helbu-
ruak. Metodologia hori, ordea, ez da ikasleek aurrera-
pauso bat eman dezaten Lanbide Heziketak eskain-
tzen duen zerbitzu bakarra. Fraisoron, Inmakuladan
eta Tolosaldean, esaterako, ikasleek Europako beste
herrialde batzuetan ikasteko eta lan egiteko aukera
izaten dute, Erasmus+ bekari esker; eta badira zentro-
an bertan bestelako zikloez aparteko ikastaroak es-
kaintzen dituzten ikastetxeak.

Inmakulada: hezkuntza kooperatiboa oinarri

2004an langileen kooperatiba gisa antolatu zen une-
tik, Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola Erdi eta Goi
Mailako Lanbide Heziketako itunpeko zentro pribatua
da, pertsonen arteko etengabeko ikasketa bermatzen
duena. Euskal izaera duen erakundea da eta hezkun-
tza kooperatiboan oinarritzen du bere lan jarduera.
Berriztatzaileak diren teknologiekin eta ingurumena-



ren babesarekin nahiz jasangarritasunarekin konprometituta dago zentro hau.

Goi Mailako nahiz Erdi Mailako zentroa izanik, zenbait ziklo burutu daitezke bertan. Goi Mailakoen artean, Gizarteratzeko teknikariarena, Diagnosi irudiko eta medikuntza nuklearreko teknikariarena edo Osasun dokumentazioko eta administrazioko teknikariarena burutu daitezke. Erdi Mailan, berriz, Erizaintza laguntzailearena, Farmazia eta parafarmaziako teknikariarena eta Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta egiteko teknikariarena daude aukeren artean.

Lan eremuan aurki daitekeen egoera erreal bati irtenbidea ematean datzan metodologia du oinarrian; ikasleak talde batean partaide aktibo moduan egiten du lan. Ikaslearen lan munduratzeari ziurtatzeko, bere ibilbide profesionala garatzen ahalegintzen dira, ikerketarako grina bultzatuz. Bestetik, pertsonak kudeatzeko, eta bere eremu desberdinak landu eta garatzeko sistema bat dute: KEG (Konpetentzien Etengabeko Garapena) tresna. Lehenik, ikasle bakoitzari bere

konpetentziak garatzeko Formazio Plan Indibiduala egokitzen zaio, eta amaierako ebaluazioan, bere indarguneak eta beharrak identifikatzen dituzte.

Don Bosco: paperaren esentzia galdu gabe

Hezkuntza eskaintza handitzeko ahaleginak egiten aritu ondoren, Tolosako Paper Eskola, Errenteriako CIFP Don Bosco Ikastetxearen antolamendu eta funtzionamendu egituren, Kimikako departamentuaren barruan kokatu zen, 2012an. Bere identitate berezi eta propioa mantendu zuen, gainera; horrela, gaur egun, eskualdearen zerbitzura jartzen du 50 urte baino gehiagoko eskarmentua. Berrikuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritzen den proiektu bat da, lanerako prestakuntzari dagozkion jarduerak egiten eta enpresei zerbitzuak ematen jarraitzen duena.

Une honetan, bi ziklo eskaintzen dituzte bertan: Instalazio kimikoko Erdi Mailako teknikariarena, eta Industria kimikoko Goi Mailako teknikariarena. Horiez gain, Lanbidek finantzaturako bi ikastaro ere ematen

ari dira: Paper pasten prestaketa eta Laborategi eta industria kimikoetako biltegi lan osagarriak. Bestalde, eskualdeko lanerako planaren barruan, Hiriko eta Industriako hondakinen kudeaketa ikastaroan ere hartu daiteke parte; azkenik, *online* bidezko ikastaroen eskaintza ere badute.

Ikastetxearen oinarritzko helburua sistemak eskatzen dituen baldintzak betetzea eta bere eragingarritasuna etengabe hobetzea da, inguruarekiko errespetua eta pertsonen segurtasuna bermatuz. Horretarako, zenbait balore jartzen dituzte mahai gainean: talde lana, koherentzia, erantzukizuna eta egokitzeko eta erantzuteko gaitasuna. Ikasleei egungo eta etorkizuneko lan jardunerako beharrezkoak izango dituzten gaitasun tekniko eta trebetasun orokorrak eskuratzen laguntzen diete. Gainera, Ikastetxeak indar berezia jartzen du euskararekin eta ingurumenarekin loturiko gai guztietan, hauen garapen eta ezarpena bideratuturiko ekimenetan parte hartuz.

Peñascal: pertsonak gizarteratzeko grina

Irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundea da Peñascal Kooperatiba, 1986az geroztik onura publikotzat aitortua. Hainbat arrazoi pertsonal, akademikiko edo sozialengatik gizartean bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea du helburu. Horretarako, haien prestakuntza eta kalifikazio profesionala, lan aktibazioa eta enpleguaren sorrera lantzen dituzte, elkartasunezko eta herri-tartasunezko jarrerak eta balioak sustatuz eta motivazioa aurkitzen lagunduz, pertsonak gizarteko protagonista aktiboak izan daitezen.

Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat ikastetxetan 14 urteko gazteak eta 65 urte bitarteko helduak irakasten dituzte. Eskualdeko zentroa Tolosako Usabal industriagunean kokatzen da, eta bertan, hiru ziklo burutu daitezke: Soldadura eta galdaragintzako Erdi Mailako zikloa, eta Elementu metalikoen fabrikazioko eta sukaldaritzako Goi Mailako zikloak. Azken horretan, Leaburuko Ostatuan egiten dituzte praktikak.

Prestakuntzaren arloko jarduerak izateaz gain, enpleguarekin konprometituta dago Peñascal; bitartekari lanak egiten dituzte enplegu zerbitzuekin eta en-

presekin, eta gizarteratze enpresak sortu eta kudeatzen dituzte. «Lanean ikasi» esamoldea erabiltzen dute lema moduan. Metodo pedagogiko berritzailea garatzen dute, praktiketan oinarritutakoa, eta beraientzat ezinbestekoa da familiekin harreman zuzena eta etengabea izatea.

Fraisoro: baserria eta baratza, eskola bihurtuta

Fraisoro Eskola Lanbide Heziketako ikastetxe publikoa da. 115 urte baino gehiago daramatza nekazartzari eta abeltzaintzari zerbitzua ematen, betiere, ikuspuntu berritzaile eta aurrerakoi batekin, eta prestakuntza, enplegu eta ekintzaitza zerbitzu integralen bidez, lehen sektorearen lehiakortasuna hobetu asmoz. 1898an inauguratu zuten, zientzia eta teknologia oinarri hartuta, Gipuzkoako nekazaritza eta abeltzaintza indartzea helburu zuen eskola. 1904az geroztik, ordea, baserritarren prestakuntzaz eta trebakuntzaz ere arduratzen da.

Fraisoro Gizartearekiko erreferentzia zentro bat izatea da asmoa. Pertsonen garapena, talde lana, partaidetza, kooperazioa, berrikuntza, etengabeko hobekuntza, sektorearekiko nahiz gizartearekiko konpromisoa eta ingurunearekiko errespetua dira eskolatik ikasleei irakasten dizkieten baloreak. Horretarako, metodologia parte hartzaileak bultzatzen dituzte, gaitasun teknikoak, sozialak eta zeharkakoak landuz.

Erdi Mailako eta Goi Mailako hiru ziklo eskaintzen dituzte Fraisoron: Lorezaintza eta loregintza, Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpena, eta Baso kudeaketa eta natura ingurunea. Bestetik, zenbait ikastaro izaten dira, lehen sektoreko profesionalentzat eta landa eremuko biztanleentzat. Lanbideren bitartez ere, ziurtagiri profesionalak lortzeko aukera eskaintzen dute zenbait arlotan. Azkenik, lan poltsaren zerbitzua eskaintzen dute, lana eskatzen duenaren eta eskaintzen duen enpresaren artean zubi lana eginez.

Eskolak dituen azpiegituren artean, aipatzekoa da duen abeltzaintza ustiatzea, eta bertako animaliak, hala nola, oiloak, untxiak, ardiak, haragitako eta esnetarako behiak –azken hauek, informatikoki kudeatutako robotaren bidez jeizten dira–. Horrez gain, praktiketarako makinaria espezializatua, 4.000 metro ka-

rratuko negutegi lursaila, erlategia, gaztandegia, laborategia, sagardotegia, estazio meteorologikoa, baso autoktonoa, txakolin mahastia edota lorategiak ere badituzte Zizurkilgo txoko eder honetan.

Tolosaldea: aukera ugari, eta kalitatezkoa

Tolosaldea Lanbide Heziketako Ikastetxe integratua ikastetxe publikoa da, langileei eta langabetuei eskainitako etengabeko prestakuntzan, baita ikasleek enpresetan egiten dituzten praktiketan ere esperientzia handia duena. Jatorria XX. mende hasieran kokatzen bada ere, 80ko hamarkadaren erditik aurrera ikastetxea enpresa mundura hasi zen gerturatzen. Urtetik urtera, handitzen joan da, etengabeko formazioa lortuz eta ziklo gehiago eskainiz. Gainera, auto-

erakundeei zerbitzua eskaintzen die. Partaidetza, prestakuntza eta elkarlana oinarri hartuta, pertsona arduratsu, ekintzaile, eleaniztun eta trebeak hezteko du helburu, eta horretarako, irakaskuntza pertsonalizatua eta metodologia aktiboak erabiltzen dituzte.

Goi Mailako nahiz Erdi Mailako zikloak irakasten dituzte. Azken honetan, esaterako, Soldadura eta galdaragintza, Mekanizazioa, Mikroinformatika sistemak eta sareak, Instalazio elektriko eta automatikoa edota Merkataritza jarduerak aurki daitezke. Goi Mailan, berriz, Administrazio eta finantzak, Mekatronika industrial, Automatizazioa eta robotika industrial, Sareko informatika sistemen administrazioa, Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa, Eraikuntza metalikoak eta instalazio termikoak



nomia handiagoa bereganatzen joan da, erreferentziatzeko ikastetxeetako bat bihurtu arte.

Heziketa integratua, berrikuntza aplikatua, ekintzailetza aktiboa, nazioartekotzea eta ikastetxearen kudeaketaren eraldaketa dira institutuaren zutabe nagusiak. Kalitatezko lanbide prestakuntza aurreratua eta berritzailea bermatzen du, aro digitala aintzat hartzen du, askotarikoa da, proiektuetan eta metodologia berrietan oinarritua, eta enpresa eta

eta fluidodunen mantentzea. Ziklo horiez gain, baina, badira bestelako ikastaroak ere, lanean ari diren langile eta sektore desberdinei zuzendutakoak, eta langabetuei zuzendutakoak. Urratsbat zerbitzua -ikasleek beraien enpresa sortzen laguntzeko programa-, aholkularitza zerbitzu integrala eta Ikastn programa ere badituzte. Azken hau, lan merkatutik urrunen dauden pertsonentzako bizi osoko ikaskuntza da.



**BEÑAT
LARDIZABAL
(INGURUMEN
KUDEAKETA,
GOI MAILAKO
ZIKLOA,
FRAISORON)**

«Beti ibili izan naiz baserri munduari lotuta, eta betidanik gustuko izan ditut mendia, basoa eta animaliak. Horregatik, duela zortzi bat urte, Zizurkilgo Fraisoro

eskolan ikastea erabaki nuen, aukera ugari eskaintzen zizkidalako».

«Guztiz bete ziren nituen aurreikuspenak. Oinarrian kontzeptu teorikoak jaso nituen, eta nire onerako, praktika ordu asko izan ziren, lana bertatik bertara ezagutu eta egin ahal izateko. Horrez gain, irteerak egiten genituen inguruko enpresetara eta basogintzako langileengana; hori oso aberasgarria izan zen».

«Betidanik izan dut basozainaren papera buruan. Hori izan da oso gaztetatik izan dudana helburua. Bide hori hartu nahi nuenez, egokiena hona etortzea zela iruditu zitzaidan, eta azkenean, hala izan zen».

«Fraisoron ikasketak amaitu nituenean, Bizkaiko Foru Aldundiak kaleratutako basozainen oposizioetara aurkeztu nintzen. Askok ikasi beharra izan nuen, eskaera maila handiko probak izaten direlako, baina merezi izan zuen».

«Nahiz eta lanbidea bera probatu dudana, oraingoz ez dut lortu basozain postu finkorik. Hori lortzea da nire erronka nagusia».

«Bi urtez, oso gustura aritu nintzen Fraisoron ikasten, etxean bezala sentitu nintzen; gomendatuko nuke, eta gomendatu izan dut, gainera».

**MANOLI
ARANBURU
(KIMIKAGINTZA,
ERDI MAILAKO
ZIKLOA,
DON BOSCON)**

«Aldaketa batzuk izan ziren nire bizitzan, eta nire lanpostua utzi gabe, ikasteko aukera nuela ikusi nuen. Gogo handia nuen, eta kimikagintzak betidanik erakarri izan nau».

«Gustura nago alor guztietan, eta nire erronka desberdinei irtenbidea ateratzeko gai naizela ikustea da gehien gustatzen zaidana».

«49 urte ditut; adin kritikoa. Unibertsitatera joateko aukera nuen, nahiz eta lau urteko gradu batek belurtzen ninduen. Bi urteko ziklo batek presio gutxiago suposatzen zuen; proba modura hartu dut».

«Lan mundurako jauzia gertu ikusten nuelako aukeratu nuen; metodologia, gainera, beste edozein ikasketetan baino praktikoa da».

«Aurreikuspen guztiak bete ditu; erraztasun handiak izan ditut, ezer jakin gabe heldu nintzelako».

«Behin martxa hartzen duzunean, eta inplikatur gero, izugarri ikasten duzu, eta aukerak handitzen zaizkizu. Lanbide Heziketa, beste edozein ikasketaren baino irekiagoa da, zentzu guztietan».

«Askok ikasten da, aukera eta laguntza handiagoak eskaintzen dituelako».

«Ez nintzela gai pentsatzen nuen nik, baina proba egiteko esaten zidaten; beraz, gutxienez saiakera bat egiteko gomendatuko nieke zalantza duten horiei, merezi duelako».





**INGE ORRANTIA
(ERIZAIN
LAGUNTZAILEA
ETA DIAGNOSI
IRUDIA, ERDI ETA
GOI MAILAKO
ZIKLOAK,
INMAKULADAN)**

«Batxilergoko ikasketak alde batera utzi nituen, ikastea ez zitzaidalako ongi ematen. Ondoren, Erizain laguntzailearen Erdi Mailako zikloa eta Diagnosi irudiaren Goi Mailako zikloa egin nituen Inmakulada Ikastetxean. Gerora, Euskal Herriko Unibertsitatean Erizaintza gradua burutu nuen. Praktikak, berriz, Asuncion Klinikari egin nituen, eta orduz geroztik bertan ari naiz lanean».

«Erdi Mailako zikloa egiten ari nintzenean jabetu nintzen ikasteko balio nuela, eta senitartekoei nahiz irakasleek izugarri lagundu ninduten».

«Guzti honek esfortzu bat eskatzen du, baina gustuko duzuna ikastean, eta zure helburua finkatzen duzunean, guztia errazagoa egiten zaizu».

«Guztiz balagarriak izan ziren Lanbide Heziketako ikasketak. Horri esker, jendearekin lan egitea edota kontaktuan egotea zer den ezagutzeko aukera izan nuen».

«Guztiz baliagarriak izan ziren Lanbide Heziketako ikasketak. Horri esker, jendearekin lan egitea edota kontaktuan egotea zer den ezagutzeko aukera izan nuen».

«Aurreikuspenak guztiz bete zituen, Erizain laguntzailearen zikloa amaitzerako zorientsu nintzelako. Orduz geroztik, bizitza aurrera joan ahala, gauzak sortzen joan ziren».

«Oso gomendagarria da, burua zeregin jakin batean zentratuta izaten duzulako».

«Bide luzea hautatu nuen, baina ikasitako eta ezagututako guztia ez dit inork kenduko».

**URKI COLINAS
(SAREKO
INFORMATIKA
SISTEMEN AD-
MINISTRATZIOA,
GOI MAILAKO
ZIKLOA,
TOLOSALDEAN)**

«Gurasoentzat unibertsitate ikastera joatea oso garrantzitsua zenez, erdi behartuta hasi nintzen Zientzia Politikoen graduan. Gustura ari ez nintzenez, Filosofiako graduan hastea erabaki nuen. Bukatu aurretik, baina, Tolosaldea Institutuan hasi nintzen, Goi Mailako Sare administratzaile zikloa egiten».

«Lanera eramango ninduen zerbait ikasi nahi nuen. Aurreikuspenak bete zituen, lanerako ikasi nuelako, teoriarik asko oinarritzen ez zen metodologia batekin».

«DUAL metodologia Lanbide Heziketa aukeratzeko arrazoi bat izan zen. Lanean hasi nahi nuen; titulatu bat lortzeak ez zuen garrantzia handirik».

«Panelfisa enpresan egin nituen praktikak, eta zorte handiz, oraindik hemen jarraitzen dut lanean. Gainera, duela urte batzuk, Mexikon lan egiteko aukera eskaini zidaten. Bi hilabeterako nindoan, baina azkenean urtebete egon nintzen bertan».

«Ez duzu zertan unibertsitate joan; Erdi Mailako ziklo batetik has zaitezke. Bi urteko formakuntzari esker, lanpostu jakin baterako hezten zaituzte, kontzeptu teknikoekin bitartez. Horrela jabetzen zara aukeraturako bidea gustuko duzun edo ez».

«Enpresan badira arlo teorikoa garatuta duten langileak, baina aurrean makina bat jarritakoan, ez dute jakiten hura nola kontrolatu. Beraz, Lanbide Heziketak ez du ezer kentzen, gehitu egiten du».

«Enpresan badira arlo teorikoa garatuta duten langileak, baina aurrean makina bat jarritakoan, ez dute jakiten hura nola kontrolatu. Beraz, Lanbide Heziketak ez du ezer kentzen, gehitu egiten du».





**IÑAKI
ORMAZABAL
(LIMOUSIN
KARTOIAK
ENPRESAKO
KUDEATZAILEA)**

«Betidanik gustatu izan zaigu Lanbide Heziketako ikasleekin kontaktzea, gurekin lan egin dezaten. Orain gutxi, ikasle ohi bat hasi da lanean gure enpresan, eta une honetan, hiru ikasle ditugu praktiketara».

«Lan mundurako jauzia ematerako ikasleek balio duten edo ez erakusten duen erreminta izaten dira praktikaldiak; oso baliagarriak, bai beraientzat, baita guretzat ere. Beraiek, gainera, enpresa mundua barrutik ezagutzeko aukera izaten dute».

«Lanbide Heziketatik datozen ikasleei bi gauza eskatzen dizkiegu: Batetik, lanerako gogoia eta izaera izatea; gure esperientziagatik, esan dezaket hona datozen ikasleek badutela. Bestetik, enpresako makinak maneiatzeko eta ekoizpena aurrera eramateko gaitasuna izatea ere eskatzen diegu; horretarako, erraztasun handiak dituztela ikusten diegu ikasle askori».

«Praktikak egitera etortzen direnean, gure lan egiteko modua erakusten diegu, balio dutela erakutsi dezaten, eta aurrera begira, aukerak izan ditzaten».

«Azken urteetan, ekoizpena areagotu egin dela ikusi dugu; hori dela eta, kontratazio berriak egiten ari gara, eta beraz, Lanbide Heziketako ikasleekin kontaktzen dugu».

«Baliagarriak eta beharrezkoak dira Lanbide Heziketako ikasleak, ondo prestatuta daudelako eta onak direlako. Denok nahi dugu gure langileak horrelakoak izatea».

**KEVIN
JOICE
(GUREAK
ENPRESAKO
ORIENTA-
TZAILEA)**

«Gureak enpresa oso handia da, langile mailan, Gipuzkoako hirugarren handiena da; profil desberdinetako profesionalak izatea oso garrantzitsua da guretzat, tartean, Lanbide Heziketatik datozenak».

«Produkzio eremuan, makinak kontrolatzeko, langileekin egoteko eta hori guztia kudeatzeko, Lanbide Heziketatik etorritako ikasleak oso garrantzitsuak izaten dira. Praktiketara etortzen diren ikasleei, aniztasun handia izatea, autonomia izatea eta ardurasuak izatea eskatzen diegu».

«Iaz, 160 lagun izan genituen praktiketara gure enpresan. Gero, horietatik %35a kontratatua izan da lanean aritzeko. Ikasleentzako beharrezkoa da baliagarriak direla sentiaraztea».

«Beraien formakuntzako uneetako bat dira praktikak. Gure ideia ahalik eta gehien ikastea da, eta hori lan egiten lortzen da. Guretzako oso garrantzitsua da heltzen direnean beraiei funtzio bat ematea. Horregatik, lanpostu desberdinak zehazten dizkiegu».

«Betetzekoak zailak diren postuen kasuan, DUAL bi-dezko ikasketa gauzatzen ari diren ikasleak aukeratzeko ditugu. Oso ondo etortzen zaizkigu, urtebeteko lanaldia amaitu ondoren, esperientzia handia lortzen dutelako».

«Lanbide Heziketako formakuntzak, metodologiak eta ereduak garrantzi handia izango du hemendik hamar urtetara».





harpidedun izateak badu saria

irabazleak

1 TXINDOKIKO ITZALA abentura Parkea

Bi lagunentzako
bina sarrera

info@txindokikoitzala.com
628 947 253 | 943 654 757
ABALTZISKETA

- Mari Carmen Dolado (Tolosa)
- Ana Goikoetxea (Ibarra)

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu.



2 TXURI URDIN irristaketa libre

Bi lagunentzako
bina sarrera

Anoeta pasealekua, 24
DONOSTIA
Tel.: 943-46 44 04
www.eltxuri.com

- Maria Jesus Sarasola (Ibarra)
- Itziar Baro (Tolosa)

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.



3 LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko
Talaso Zirkuitua

Kontxako pasealekua z/g
DONOSTIA
943 45 88 56
www.la-perla.net

- Tere Urruzola (Tolosa)

ATARIA jarriko da harremanetan bonoa eskuratzeko.



4 ELKAR argitaletxearen 2 opari



IRTEERA ARGIAK diskoa - Enaut Elorrieta.
TXORIA NINTZELA - Xabier Etxeberria.
elkarargitaletxea.eus / 943 31 03 01

- Mari Carmen Agote (Villabona)
- Aitziber Olaizola (Baliarrain)

ATARIA jarriko da harremanetan
oparia eskuratzeko.

HEMEN ZURE IRAGARKIA JOAN DAITEKE

publi@ataria.eus
661 678 818

«Gradua oso praktikoa da, eta ikasgaiak erronketan oinarritzen dira»



Maider Imaz (Tolosa, 20 urte) Ikus-entzunezko Komunikazioa graduoko 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Definitu zeure burua. Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Bazu hobby edo zaletasunik?

Unibertsitatera sartu aurretik, nire batxilergoko ikasketak Orixe institutuan burutu nituen.

Hobby eta zaletasunei dagokionez, zerbait azpimarratzekotan sorkuntzarekin erlazionatutako edo zer gauza nabarmenduko nuke. Egia esan pertsona ekintzailea naiz, mugitua eta oso irekia. Nire denbora gauza ezberdinak egiten pasatzea gustatzen zait...

Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Ez nuen oso argi zein gradu aukeratu, zaila egiten zitzaidan gradu zehatz bat hautatzea eta Ikus-entzunezkoan aukera gehiago ikusi nituen, adar gehiago lantzen direla ikusita.

Batxilergoko ikasketa-metodo zaharrez nazkatuta, Mondragon Unibertsitatean martxan dagoen ikasketa-metodo berritzailearen inguruko *feedback* oso

positiboa jaso nuen. Izan ere, bertako ikasgaiak erronketan oinarritzen dira, ikaslea etorkizunean aurkituko dituen egoetara prestatuz.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Esperientzia positiboa izaten ari dela uste dut, bai alderdi pertsonalari zein profesionalari dagokionez. Nire burua errealtateko erronka ezberdinetan ikusteak nire baitan eboluzio bat ekarri duela esango nuke. Azken finean, zure konfort egoeratik ateratzen zara, aldezturik zeure buruarekiko zenituen aurreikuspenak gaindituz.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Ez dut uste metodologia hobe dagoenik nire graduari dagokionez. Izan ere, gradu honek dituen lan irteerak oso praktikoa dira eta hori ez da ikasten liburu baten aurrean soilik. Teoria ongi dago, baina ikasitako guztia martxan jartzeko ezinbestekoa da praktikan oinarritutako ikaskuntza prozesu bat.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Aipatutako ikaskuntza metodo berritzaileez gain, gehien gustatzen zaidana gertutasuna dela esango nuke bai irakasleei eta bai gelan sortzen den giroari dagokionez.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Neure burua kazetaritza munduan ikusten dut, euskal kazetaritzan, hori da gehien gustatuko litzaidakeena. Komunikazioa gustatzen zait, euskaraz komunikatzea, berdin zait idatziz edo ahoz.



**IMANOL ARTOLA
ARRETXE 'FELIX'**
FILOSOFO ETA
ANTZEZLEA

Barkatu irakurle, baina behar nuen

Testu hau irakurtzean agian haserretuko zara irakurle, nirekin. Baina, etxean itxita gauden honetan, zer nahi duzu ba esatea, ezin dut gezurrik esan. Egiatiago bilakatu naiz.

Badakit ez dudala mundua aldatzeko boterarik, baina apur bat errudun sentitzen naiz, aizu. Baziren hilabete batzuk, benetan zer nahi nuen neure buruari galdetu eta barru-barrutik «gaixotzea» erantzuten nuena. Gaixotu? Zertarako, bada? Ba, etxean lasai egon eta niretzako denbora izateko hain zuzen. Ardurarik gabe. Zurrunbiloan sartuta egon gabe. Gero pentsatzen nuen ordea, ez zegoela gaixotu beharrik, gauza batzuei ezetz esan, eta kitto! Baina, *felixek* orain arte gutxitan esan du ezetz. Ezetz esatea, zera egiten zaio, bortitza, biolentoa. Aukeratzea ere bai. Bat aukeratzeak, besteari ezetz esatea esan nahi duelako. Beraz, *felixek* ia bere bizitzako 30 urteak daramatza, ahal dela aukeratu gabe. Egoera papera etortzen zaionean aprobetxatu eta, joaten denean, beste aukera baten zain egon.

Zain egon. Horixe da hitza. Koldarra naiz. Zain egoten naiz, beti. Inoiz ez noa ezeren atzetik. Zergatik? Agian, ezezkoa jasotzeko beldurragatik.

Tira, kontua da, azken aldian geroz eta indar gehiagoz eskatzen ari nintzen gaixotzea eta zer da eta, ni ez, mundu osoa gaixotu da. Eta *felix* osasuntsu. Inoiz baino osasuntsuago.

Zurrunbilorik gabe, etxean lasai, lana ere neurrian dator azken egunetan, irakurtzeko denborarekin, kirola egiteko... eta batez ere, etxean egoteko. Etxean egoteko beharra nuen. Baina, gauzei ezetz ez esatearekin, neure buruari esaten nion beeeeeeti ezetz. Eta, neure buruari ezetz esaten nionez, neure burua utzi dut bazterrean, neure buruarekin ez nengoen gustura. Lotsatuta nengoen, haserre. Horregatik nengoen beti besteekin, neure burua aparte utziaz.

Eta berdin etxearekin. Ez dakizu, irakurle, zeinen gustura nagoen, behingoz. Martxoaren 14an inoiz ez bezalako garbitua eman nion etxeari, gauza batzuk lekuz ere aldatu nituen eta, aizu, ez dakizu nire begientzat zenbat aldatu den. Ez dakizu zenbat behar nuen, NIRE etxean egote hau. Behingoz nire sentitzen hasi naiz. Eta, maiz-maiz garbitzen hasi ere bai, zeinek esango zidan.

Hilabeteetako lana dago aldaketaren atzean, baina badakizue, sakoneko lana ez da ikusten. Eta nik ere, azken aldian egiten ari nintzen lana, ez nuen ikusten. Eta orain, munduaren gaixoardian, udaberriarekin batera, hostoak eta loreak ikusten hasi naiz. Zuhaitzetan bezala, egun gutxiren buruan. Eta gainera, inori ezetz esan gabe.

Nire oinarriarekin bat egiteko halere, egun gehiago behar ditut. 40? Agian ez dira nahikoa izango. Baina, nahiz eta hau amaitzean oraindik guttiz oinarriarekin bat egin ez, gauza batzuk aldatuko dira niregan.

Barkatu, irakurle. Badakit ez dela nire errua izan baina, nik behintzat, behar nuen.

**Baziren
hilabete
batzuk,
benetan zer
nahi nuen
neure buruari
galdetu eta
barru-barrutik
«gaixotzea»
erantzuten
nuena**

Mores hominum



**ROCIO FRAGA
VAZQUEZ**
GIZARTE
HEZITZAILEA

Giza espeziea existitzen denetik, behin eta berriz akats berdina errepikatzera kondenatua dagoela dirudi: zerbait galdu arte, ez dugu galdutako hori behar bezala baloratzen.

Isolatuta gauden egun hauetan, jendea kexaka dabil, beste izakiekin kontaktua faltan sumatzen duela esanez, normaltasunean murgildurik gauden

nean, ordea, ez dugu aire freskoa patxadaz hartzen, ez ditugu lagunekin kafe luzeak hartzen edo amaigabeko ibilaldiak egiten. Paradoxikoki, egunerokotasunean ohitura bezala ditugun gauzak egiteko nahi dugun denbora guztia daukagu orain; sakelako telefonoa esku artean dugula orduak eta orduak igaro, Netflix-eko kontuari probetxua atera, Whatsapp-a erre... baina hori egiteko aukera daukagunean, ezi-

eta ekonomikoen gatazkak areagotuz eta azpijokoen teoria ezberdinak ugalduz.

Baina honen guztiaren artean, borroka maitasunez eta positiboki egiteko gai diren pertsonak ere gehiago nabarmentzen ari dira; arrisku gehien duten pertsonen laguntzeko taldeak sortu dituztenak, itxaropenez, gizalegez jokatzeko dutenak, lanaldiak etengabe luzatu dituzten mediku, erizain, dendari, gidariak...

Isolamendu aldia batzuentzat amesgaiztoa izaten ari da, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako edo sexu abusua pairatzen dituzten umeentzako, adibidez. Haien arazoak kalera ateratzeko ahalmena galtzea baino, bizitza galtzea izan daiteke, beraien borrareroarekin giltzapetuta baitaude. Normalean zaila bada beraien burua defendatzeko mekanismoak aktibatzea, garai hauetan ia ezinezkoa litzateke, baina une latz hauetan etengabeko buruhaustean ari dira batzuk, pertsona hauei lagundu ahal izateko bideak topatzekotan. Pertsona hauei guztiei esker manten-

**Nahi genuena egiteko aukera daukagunean,
ezinezkoa duguna desio dugu.
Gizakiaren betiereko beste zigor bat, hala deritzot.**

nezkoa duguna desio dugu. Gizakiaren betiereko beste zigor bat, hala deritzot.

Hausnarketarako denbora asko daukagu egun (edo aste) hauetan, eta zeri buruz hausnartzeko aukera egon badago. Esaterako, gizartearen jokamoldea «koronabirus eskalan» irudikatzen ari garela iruditzen zait, hau da, pertsona edo giza-talde bakoitza, munduan egoteko daukan modua egoera berri honi egokituta ari da jokatzeko. Batzuek izua zabalduz, beste batzuek besteen lana kaltetu dezaketen gezur mezuak hedatuz, berekoikeriaz jokatzeko, interes politiko

tzen da gizartea hala-moduzko martxan, bestela, soilik hasieran aipatu ditudan menpe egongo bagina, akabo.

Mundu honetan egokitu zaigun denbora nola bizi nahi dugun hausnartzeko eta erabakitzeke garaia izan daitekeela iruditzen zait, polikiago bizi, gehiago koinatu, gehiago maitatu, gehiago gozatu, mendira joan... Bien bitartean, etxean gaudela ere, hau martxan jartzen has gaitezke, gertukoak besarkatu, jolastu, kilimak egin... Behingoz, edozer galdu baino lehen konturatu gaitezen zein polita den.



UNAI MENDIZABAL
'MENDI'
HARITUZEKO KIDEA

Zilborra

Doinua Nork bere mundu intimo

Etxe barruan sartuta
gauden bitartean kexan
txoriak kantuan dabiltz,
behorrak larrean etzan,
udaberriak zuhaitzak
loratu ditu sorpresan...
Gelditu garen honetan
guztia salba genezan
ispiluari begira
onartu dezagun, esan
ez garela ezin besteko
munduak jarraitu dezan.




IÑIGO GOROSTARZU
'ETXORDE'
HARITUZEKO KIDEA

Kuku

Doinua Ze ederra ta ze polita

Iritsi gera sinismen
klase, sexu nahiz bandera,
ajolik ez dion birus
baten beldur izatera,
gerra garaian bezela
guztiok ate atzera,
arriskutsu da auzoko
edo familia bera,
ateratzen ez den hura
aterako da aurrera,
nola mezu horrek zuen
bibliakoen tankera,
artzaaien animo mezuz
eman nahi det amaiera,
kukua kantuz hasi da
eta salbatuko gera.





Ibaikadak INOZENTZIA VS KULPA

Kutsadura, gaixotasuna, ikusezintasuna, heriotza, erresistentzia, borroka eta galera da. Sexua eta sexualitatea, droga, gorputza, plazera, mina, epidemia, medikuntza, farmazia, industria, estigma. Semena da, odola, pixa, izerdia, listua, fluxuak, kontrola, analitika eta errua dira. Kondoia eta xiringak. HIESa defentsak jaitea da. HIESa galdetzea da. HIESa isilik egotea da. *Sida* liburuko zati bat da hau.

Bi birus gaur egun batera bizi direnak, batak herritar zehatz batzuei eragiten dio eta besteak guztiei. Jar gaitezen gaixotasunarekin edo bere aurrean egunero bizi diren tokian. Uste dut gaur inoiz baino errazagoa dela.

Edo pentsa dezagun 80. hamarkadan gaur ditugun neurri edo errekursoren bat erabili izan balute, nolako litzateke HIESaren inpaktua?

40 urtean txertorik ez egoteak eta albistegietan egunero gaixotasun berri honen txertoa gertu dagoela entzuteak sutu egiten nau.



**RAMON
OLASAGASTI**
GALTZAUNDIKO
KIDEA

Herniozabaletik, itsasoari begira

Asmatu ezinik dabil. Ipuin bat harilkatu nahi du, egunotan bizi gaituen ipuin makabroari buruz, baina neuronak ere berrogeialdian ditu, itxuraz.

Gaia, garbi du: gailurra, gailur irrikatua, ezinbestean etxetik atera gabe joko dugun goi hori.

Gailur desiratuaren bila, umoretik abiatu da hasieran. Interneten irakurritako albistearen haritik, koronabirusak Aneto gailurra jo duela idatzi du ipuinaren hasierako lerroetan. *Birusak, mendizale italiar bartzuen gorputzean egin du txango Italiatik Pirinioetako tontor garaienera, eta han, Andorrako bikote bat kutsatu du, Koronas lepotik gora gailurra jota.* Baina ez da arinkerietarako garaia, ez da Anetokoa guztiok espero dugun koronabirusaren gailurra. Paper-pilota bildu eta zakarretara bota du proto-ipuina.

Gordinetik jotzea erabaki du orduan. Alarma egoez ezarritako izu kolektibo horretan aise kutsatu zaigu hizkera belikoa ere, eta, badaezpada, Espainiako armada bera etorri zaigu Euskal Herria desinfektatzera. Utikan, ordea, mugak eta politikak, pentsatu du ipuingileak. Hau gerra bada, etsaiak garbi erakutsi du bost inporta zaizkiola mugak eta klase sozialak, berdin egiten diela kosk Wuhango langile xumeei nahiz Moncloako ministroei. Eta orduantxe argi prin-

tza, hortxe duela ipuina, pentsatu du idazle ustekoak, eta fikzioa egiteari heldu dio: *Gailurra jo du birusak. Inoiz armadaren burua eta koroaren jabea izan zena, auskalo zenbait milioi konfinaturik dituen, borboi emeritua, hura ere xangre maltzur honek heldu du. Hiru asteko itxialdiaren buruan, gainera, koroa kutsatu duen egun berean, hasi du koronabirusaren kurbak beherako bidea.* Bizitzaren paradoxak. Gaur 20:00etako txalo zaparrada inoiz baino ozenagoa izan da... Bertsolarien gisan, azken arrazoia ere pentsatu du: *borboi aita-jaunarekin jo du gailurra koronabirusak eta hondoa koroak.* Baina moralkeria eta populismo gehitxokoa iruditu zaio ipuina. Borboia beharrean, Trumpekin beste aldaera bat ere saiatu du, baina azkenean albo batera utzi du ideia.

Azkenik, itxialdiaren bezperan, apnearako azken arnasa hartzen duenak legez, Herniozabal gailurrera eginiko txangoa hartu du abiapuntu. Eta autofikziotik heldu dio ipuinari: *Apnearako azken arnasaldia hartzen duenak legez, Itsasoa begiztatu du instant batez, jakinik puska batean ez duela berriro ikusiko, eta, udaberri bahituari ostutako oxigeno erreserba doiarekin, liburuz ondo hornituta, bunkerrean itxi du bere burua hurrengo asteetarako. Egunen joanean, Giuseppe Conte Italiako lehen ministroa entzun du*



esaten «Bigarren Mundu Gerraren ondoren izan dugun erronkarik garrantzitsuen» bizi dugula. Eta, Italiako egoerarekin hotzikarak jota, Herniozabaleko haizeak Julen Gabiriaren 'Han goitik itsasoa ikusten da' liburua ekarri dio gogora, nola Italian bertan, bigarren mundu gerran, Gino Bartali txirrindulari handiak eta gainerako protagonistek, mendateen goialdetik itsasoa begiztatzea amesten zuten. Gerraren amaiera, bakea, ametsa, poza irudikatzen du itsasoa, Gabiriaren liburuan. Eta Herniozabal goitik ere ikuspegi bera begietsi daitekeela otu zaio ipuingileari: Gerra honetan ere, mendatean gora, gailurrera bidean, tropelak hainbat kide galdu ditu, baina gero eta gertuago du gailurra. Eta bai, han goitik ere itsasoa ikusten da.

Emaitzak ez du asebate. Amaiera mengel samarra,

pentsatu du bere artean, eta zakarretara bota du zirriborro hori ere. Eta ernegua sosegatzeko, Herniozabaleko argazkiei begiratu die enegarren aldiz.

Oharra: Galtzaundiko eta ATARIAKO kide eta irakurle maiteok, zutabe honetan euskara izaten dugu normalean hizpide, eta barkatuko didazue gaurko burugabekeria hau. Kateko zakurrak bezala, zaunk, zaunk! besterik esaten ez dakigu jada: koronabirus, koronabirus... Nolanahi ere, gonbite bat ATARIAKO eta Galtzaundiko kideei eta idaztea maite duten guztiei: sormena ihesbide ona izan daiteke isolamendu egoera honi aurre egiteko; idatzi eta bil ditzagun *Itxialdiko ipuinak*. Seguru ale ederrak sortuko direla. Bakartze garaietarako txerto ona da literatura, eta euskarak ere eskertuko du.



URTEBETE ETA GERO, BRUMADINHOKO KALTETUEKIN BAT

Iragan urtarrilean Martin Mantxo Ekologistak Martxaneko kidea Brasilen izan zen. Lehen urteurrenean Brumadinhoko kaltetuei babesa eskainiz. Lehen pertsona kontatu du bertan bizi izandakoa.

Martin Mantxo

Urtarrilaren 21etik 25era Brasilen izan ginen, MABko kideekin eta Brumadinhoren hondamendiak kaltetutakoekin bat egiten, astebeteko ibilaldian, haren lehen urteurrena ospatzeko. 2019ko urtarrilaren 25ean, Vale enpresaren urtegi bat hondatu zen, konpainiak herri horretan dituen bulegoak eta une horretan lanean ari ziren langileak aurretik eramanez. 272 hildako izan ziren, gehienak une horretan lanean edo bazkaltzen ari ziren langileak.

Baina, berez, hala deitzen zaion arren, kolapsatu zuena meatzaritzako hondakinen biltegi bat izan zen. Erauzitako harkaitza txikitu eta garbitu ondoren, bertatik burdinazko partikulak bereiztearen ondorioz sortzen diren hondakinak. Meatzaritza modernoaren aurrean gaude, meatzaritza honek, landaretza eta ekosistemen azalera kendu ondoren, bere

barnealdea kilometroz kilometro ateratzen du pixkanaka. Herrialde horietan, haien zorra arintzeko alternatiba ekonomiko gisa planteatzen den meatzaritza da, NDFren egiturazko doikuntzen formula gisa, Brasil, Argentina, Txile, Peru, Ekuador, Mexiko, Guatemala, bai Latinoamerika osoa, suntsitzen duen meatzaritza. Baita Venezuelen ere, Orinokoko Meatzaritza Arku berriarekin. Edo mundu guztia, batez ere lapurtutako Hegoaldean, Afrikan, Asian... Ameriketako Estatu Batuetako, Europako, Kanadako eta orain Txinako konpainiek lapurtuak.

Kasu honetan, kaltetuentzat, odoltsuena da krimena egin zuen konpainia, brasildarra izatea. Vale 1997an pribatizatu zen, egiturazko doikuntza neoliberal horien neurri gisa. Brasilen hedadura eta aberastasuna ikusita, baita beste erraztasun batzuk ere –energia merke eta pribilegiatua (hidroelektri-

koa), pribilegio politiko eta legalak, eta abar-, Vale Brasilgo enpresa handiena eta munduko meatzaririk handienetakoa bihurtu zen.

Brumadinho Brasilgo Minas Gerais estatuan kokatzen da, bere meategiengatik izen hori jasotzen du. Hasieran urrea zen bilatzen eta aurkitzen zena. Orain burdina da.

Bidaia honetan, Paraopeba ibaiaren ibilbidea egin genuen, San Frantzisko ibaiaren adar bat, Brasilgo ibai nagusietako bat Amazoniaren hegoaldean. Eta hori da, bestalde, hondamendiaren beste dimentsioa: biltegia apurtzean deskargatu ziren lokatzak, oso kutsagarriak diren lokatzak dira, metal astun askorekin. Inguruko gune guztia lohi horietan lurperatuta geratu zen, etxeak eta errepideak barne. Eta elementu likido baina lodi bezala, mugitzeko tokia ere bilatu zuen, ibaia baino ez dena. Paraopeba ibaia erabat kutsatuta geratu zen.

Esan beharra dago, meatzaritza jarduera handia izan arren, ibai handi hau oraindik ere ur hornikuntza baliabide nagusia zela bere ertzean zeuden komunitate ugariak urez hornituz. Horietako batzuk indigenak, Pataxo herria kasu, ibaiaren menpe baitzeuden. Haraneko biztanle guztiek, edateko edo bainatzeko, garbitzeko edo freskatzeko, eta arrantzarekin elikatzeko iturri gisa erabiltzen zuten, adibidez bertan bizi ziren *siluro* handiei esker, metro bateko luzera artekoak. Haran horretan zeuden komunitateak benetan jasangarriak ziren.

Baina hondamendiarekin dena galdu zen. Kutsaduraz gain, ibaiaren jarioak atzera egin zuen arrain guztiak beren eremutik kanpo utziz, eta hil egin ziren. Gero kutsadura etorri zen. Urtebete geroago, Paraopeba berriz ere indartsu doa, baina bere urak hilda daude. Hala, hildako 272 pertsonen gain, milioi bat lagunei eragiten die krimenak. Urik gabe geratu dira, arrantzarik gabe, beren baratzak urpean edo kutsatuak, lanik gabe...

Paraopebako urak, 300 kilometroren ondoren, San Frantzisko ibaira iristen dira, baina han, urtegi han-

diak eraiki zituzten -Três Marias-. Lohi guztia han geratu zen gordeta. Baina urtegiak ura askatzen duen heinean, metal astunak askatzen ditu, eta, beraz, ibaia kutsatzen du, etengabe, ibilbide osoan: Handik, 1.000 kilometro inguru, aipatutako ondorio berberekin. Beraz, harrotasun teknologikoak diren konplexu handien aurrean dago gizartea, baina huts egiten dutenean giza eta ingurumen izugarritzko hondamendiak dira, eta konpontzen zailak edo ezinezkoak diren kasuan bezala.

Guztira, hondamendiak kaltetutakoak milioi bat dira, eta horietako asko ez dituzte aintzat hartu ez erakundeek ezta enpresak ere. Bitxia bada ere, kopuru hori da orain arteko istripu handiena eragin zuten berberak, 2015eko Marianarena, Valek ere egindakoa -kasu horretan Samarco izeneko partzuergo batean-. Hori dela eta, kaltetuek «kriminal berrerorlea» dela aurpegiratuko diote Valeri. Han hildakoak 11 izan ziren. Desagertuak 15. Baina Brumadinhon bezala, meatzaritzako lohi toxikoak Brasilgo beste ibai handi batera ere iritsi ziren, Doçe ibaira -Gozoa-, dena bere ibilbidean kutsatuz, bere uren mende zeuden 230 udalerri guztira. Itsasoratzen zen arte kutsatu zen, itsasertzeko itsas kilometroak eta itsas barnea. Bost urte igaro dira, eta kutsadurak bere horretan dirau. Ondorioak gainditzeko beste 95 urte beharko direla uste dute. Doçe ibaiaren luzerako kutsadura honen ondorioz, Samarkoko kaltetuak beste milioi batean estimatzen dira. Ironikoki, ibai hori zen jatorriz Valeri izena eman ziona -Vale do Rio Doçe-, pribatizazioaren ondoren laburtua.

Beraz, bost urtean Valeren krimenak bi milioi gehitu dizkiete herrialde osoan milioi bat batzen zuten urtegiek kaltetutakoei. Horietatik %70ek ez zuten kalte ordainik jaso. Milioi bat kaltetu horiek Brasilgo proiektu hidroelektriko guztiei dagozkie; izan ere, mota horretako azpiegitura gutxien dituen munduko herrialdeetako bat da, bere aberastasun hidrikoagatik. 256 mega-urtegi ditu eta beste milaka txiki; modu honetara ekoiztutako energiaren %80a supo-



satzen du. Hiru milioi kaltetu baino gehiago –Euskal Herriko biztanleria–.

Marianan, MAB sartu zen kaltetuen laguntzan eta aholkularitzan, berezko «urtegia» ez izan arren. Kaltetuek ez zuten laguntza publikorik jaso edo ez zuten beharrezko laguntza jaso. Brumadinhokoei berdina gertatu zitzaientzen, Bolsonaroen gobernu berriak ez baitzuen haren erantzukizuna onartu. Kasu honeetan, MABek Marianan ikasia zuen, non Valek –Samarco– entitate independente bat sortu zuen, Renova, eta, beraz, ezkutatu eta bere erantzukizunak saihestu zituen. Hondamendi hartatik bost urtera, familia bakar batek ere ez du galdutako etxea berreraikita ikusi. Berdin Brumadinhon. Horregatik, MABek «A Vale destrói, o povo constrói» –*Valek suntsitu egiten du, herriak eraiki*– kanpaina abiatu zuen, familia baten etxea eraikitzeko ahalegin sinbolikoa, gobernuaren eskumenik eza salatze modu gisa.

Hau ere, martxan gehien oihukatutako leloa izan zen.

Oraingoan, Brumadinhon, MABk ikasia zuen ikasgaia, eta ez zion Valeri haren moduak erabiltzen utzi, eta zuzenki negoziatzera behartu zuen. Urtarrilean bertan egon ginenean, negoziazio taldeak baikortasunez egin zuen aurrera, kaltetuentzako justizia lortzeko. Baina, batez ere, lan asistentzial, logistikoa eta legalaz gain, MABren lana koadroak sortzera bideratzen da, komunitateak antolatzea beren eskubideen

alde eta mugimendu bat eraikitzen. Hondamenditik urte bakarrera, Brumadinhon lan honen emaitzak egiaztatu ahal izan genituen, erakundean integratutako eta konpainiari eta politikariei aurre egiteko erabat ahaldundutako bertako jende askorekin.

Zalantzarik gabe, martxako bost egunetan zehar, unerik zirrargarrienetako bat Valeren trenbideen okupazioa izan zen, Espirito Santuko porturantz doan inguruko burdin guztia ateratzen duen trenbidea, handik esportatzen baita. Azpiegitura hau ezinbestekoa da meatzaritza enpresarentzat, eta burdina ateratzeko eta, ondorioz, etekinak sartzeko; beraz, ekintza eraginkorra izan zen. Egun hartan euria ari zuen etengabe, baina inspiratzailea zen jendearen jarrera, batez ere gazteena. Gainera, euren kultura musikalarekin, gai izan baitzen hain baldintza txarretan ondo pasatzeko.

Eta bistan da, azken eguna, urteurrenaren eguna, urtarrilaren 25a izan zela hunkigarriena. Egun horretan hileta eta omenaldi ekitaldi bat antolatu zuten, non MAB erlijio pertsonaiekin batera eragile nagusia izan zen. Aurretik, gobernadoreak beste bat antolatu zuen, baina biktimak ez ziren bertaratu, iseka gisa ulertu baitzuten, urtebete eta gero euren entzungor egitegatik. Omenaldian hunkigarria izan zen senide horiek guztiak ikustea, 272 hildako horien hedadura. Haien argazkiak elizako hormetan ikusi, eta 272 zenbat diren egiaztatzea. Kaltetuen min zuzena ere egiaztatu genuen, haien egoera pertsonala, drama azalduz, kasu batzuk izugarriak baitira. Omenaldian isiltasuna gorde zen biktimen alde. 272 kanpai hotsek hautsi zuten isiltasuna, gehiegizkoak bihurtzen. Eta hainbaten negarrek hautsita, halako oroitzapenetan oraindik hain berria den oinaze hura guztia igartzen zitzaientzen biktimena. Oraindik askorentzat sendatu gabe: 11 lagunek jarraitzen dute desagertuta, eta askoren zatiak baino ez zituzten aurkitu. Hamabi egun geroago gertatu zen Zaldivarko zabortearen istripua: bistan denez, ondorioen eta biktimen distantziak gordeta, paralelismoak asko dira.

Hemen *eta* online

iragarki
laburrak
.eus



 iragarki
laburrak
.eus



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Giro eguzkitsua baina freskoa. Ekialdeko haizeak zerua garbi mantenduko du egun osoz, nahiz eta, momenturen batean hodeixkaren bat ikusi. Goiz hotz baten ostean, ekialdeko haizeari kosta egingo zaio giroa gogoratzea, beraz, giro nahiko freskoa geratuko zaigu. Temperatura balio altuenak zertxobait errekeratuko dira eta 12-14 gardu bitartean joko dute goia.

LARUNBATA

Giro eguzkitsua eta nahiko epela. Ekialde, ipar-ekialdeko haizearen eraginpean jarraituko badugu ere, erdi mailako geruzetan aire epelxeagoa sartuko denez, lurrazalean nabarmen samar egingo dute gora tenperaturek. Egunekeo erdiko orduetan 16-18 gradutan joko dute goia termometroek. Zeruan goizeko behe-lainoa kenduta, egun osoz giro urdina nagusituko da, momenturen batean hodeixkaren bat agertzea baztertu gabe.

IGANDEA

Giroak okerrera egingo du. Jada goizetik ipar haizea ibiliko da eta zeruan hodeiak nagusituz joango dira, goiz erdirako zerua estalirik geratuz. Hodei hauek eguerditik aurrera gainera euria ere utziko digute. Zaparradak orokorrean ahu-lak izango dira, baina arratsalde partean uneren batean indar gehixeagorekin botako du. Temperatura balio altuenak goizean emango dira, 13-15 gradutan joaz goia. Eguerditik aurrera aire oso hotza sartzen joango da eta eguna tenperatura hotzekin amaituko dugu.


ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



ZORIONAK

Konfinamendu egoera honetarako gogoratu zein den lehen aholkua: hasitako gauzak bukatzea. Zure kasuan, hasitako bertso txarrak eta orri aurreratuak bukatzea!



ORDU ALDAKETA

Martxoaren 29 igandeko 02:00etan 03:00ak izango dira.

FARMAZIAK

MARTXOAK 27, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. Jesus Mari Etxebeste
Elosegi. Gernikako Arbolaren
lorategiak, 3. 943 65 10 40.

MARTXOAK 28, LARUNBATA AMASA-VILLABONA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

MARTXOAK 29, IGANDEA TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korreo, 20.
943 67 60 13.

MARTXOAK 23, ASTELEHENA IBARRA

Egunekoa. Eurne Mujika Martinez.
Euskal Herria, 3.
943 67 09 15.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.**
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.



**2 eta 3 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuak terraza
zabal eta eguzkitsuak ikuspegi paregabeak mendietara
zatoz eta erreserbatu zure gustuko pisua!**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

Audi Enpresan
ISURTZERIK GABEKO
ETORKIZUN BATEN ALDE
EGITEN DUGU LAN.

ARRASTORIK EZ
UZTEKO BERRITU
DUGU.

Gaztelugatxe, Bizkaia



Audi Q5 TFSIe berria

Ahalegin handia egiten dugu zero isurtze izango duen etorkizuna eraikitzeko. Berrikuntzen alde egiten dugu Audi TFSIe teknologiari eta entxufagarria den Audi teknologia hibridoari esker, azken horrek gasolina motorra eta integratutako motor elektrikoa konbinatzen dituelarik. 40 kilometro baino gehiagoko autonomia elektrikoa duenez, gidatzeko modu eraginkor eta arduratsua eskaintzen du.

Audi TFSIe teknologia ondorengo modeloetan egongo da:

Audi Q5 TFSIe, Audi Q7 TFSIe, Audi A3 Sportback 40 e-tron, Audi A6 TFSIe, Audi A7 Sportback TFSIe eta Audi A8 SIE.

audi.es/tfsie



Autowag Tolosa

Usabal poligonoa, z/g
20400 Tolosa
943 67 35 81

Audi Q5 TDSIe: 220 kW (299 CV)-tik 270 kW 8367 cv)-ra. CO2 isurtze konbinatuak: 50-64 g/km (NEDC: 46-54 g/km). Kontsumo konbinatua: 17,5-20,3 kWh/100 km.